

ek!

eta kitto!
euskara elkarteak

2026ko irailak 4 - 1406 zenbakia

ARRATEKO JAIETAN GORA!

Euskara
eroso ikasi
eta bizitzeko



Eibarko AEK euskaltegia

2026-2027 EUSKARA IKASTAROAK

MATRIKULA ZABALIK irailaren 30era arte

- Maila guztiak: A1, A2, B1, B2, C1, C2
- C2 maila prestatzeko ikastaroak! Galdetu informazioa

Sostoa 1-1. solairua - 943 20 13 79 - eibar@aek.eus

DIRULAGUNTZA BERRIAK

C1 maila (16-18 urtekoentza), A1, A2, B1 mailetan

OHITURA txikiek herria ERALDATZEN dute.

3 SALTOKI. 3 ZIGILU.
5 €-KO DESKONTUA

Baduzu zure Eibar Eraldatuz Txartela?

Eskatu parte hartzen duten saltokietan, bildu 3 zigilu desberdin eta lortu 5 €-ko deskontu-balea.*

Parte hartu!

*Ekarri zure txartel zigilatua urriaren 24an Eibarko IV. Kontsumo Arduratsu eta Ekologikoaren Azokara.

Informazio gehiago: egoaizia.org



EIBAR ERALDATUZ

EGOAZIA

5€-ko baleak

ZURE IBILBIDEAK SARIA DU

parte hartu!

QR CODE

ONDO PASAU Arratiak!

ehbildu



Jarrai iezaguzu!



Iraila heldu da, eta askorentzat urteko bigarren hasiera izaten da. Ikasturtea hasi, errutinara itzuli eta asmo berriak hartzeko garaia. Zer asmo dituzu aurtengo irailerako? Ohituraren bat aldatu nahi duzu? Zerbait berria ikasi edo egiten hasi? Eta... zein da urtero irailean egiten duzun promesa, baina azkenean betetzen ez duzuna? Kanean galdetu dugu: iraila, urtarila berria al da?

BIDEOAK YouTubeen ikusgai



www.etakitto.eus



eta kitto!
euskara elkarteak



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA

Urkizu, 11 - 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

aldizkaria@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Naia Aizpurua,

Irati Alvarez, Ekhi Belar, Ander

Fernandez, Silbia Hernandez,

Iruñe Jaio, Yanire Sagredo,

Oihane Zabala

ADMINISTRAZIOA

Naiara Esnaola

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINU ARLOA

Iruñe Jaio

JATORRIZKO DISEINUA

Maku Oruezabal

HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA

Ander Fernandez

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALA

Iruñe Jaio

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



Eskutitzak



Eskerrik asko, bihotz-bihotzez

Uztailaren 28an hil zen Angel Jaureguibarriaren familieren izenean, gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu San Andres Nagusien Egoitzako eta Eibar Ospitaleko langile guztiei, zaintzaileei, sendagileei eta erizainei, Angel zaindu eta artatu duzuen moduagatik.

Eskerrik asko berari eta guri eskaini dizkiguzuen arreta, samurtasun, maitasun eta gertutasunagatik. Une zail hauetan zuen profesionaltasunak, baina batez ere zuen gizatasunak, asko esan nahi izan du guretzat.

Eta, nola ez, une latz hauetan gure ondoan egon zareten lagun guztioi, zuen babesa, maitasuna eta hitz goxoengatik.

Eskerrik asko bihotz-bihotzez.

Etxeakoak

Hortik esanak



Ez dago bizikidetzaren hausturaren edo gatazka soziopolitikoaren kontakizuna berresten duen elementu bakar bat ere, ezta estatistika irizpiderik edo gizarte pertzepziorik ere (...) Euskal gizartea ahalegin handia egiten ari da iraganeko logikak gainditzeko, eta biktima guztiak eta giza eskubideak aitortzearen inguruan bizikidetzaren demokratikorako itun sozial berri baten bila ari da (...) Inork ez du liskarrik, borrokarik edo indarkeriarik eta, oro har, eskubideen urraketarik nahi.

Giza Eskubideen Euskal Herriko Behatokia

Teknologia guztiek gure indarrak handiagotzen dituzte, gauzak errazten dizkigute, etekinak handitu, beharrezko denbora gutxitu. Adimen artifizialak planteatzen dizkigun erronka handietako bat da haren esku uzten dugula erabakiak hartzeko gaitasuna. Hori filosofikoki oso kezagarria da. Gizaki egiten gaituen ezaugarri nagusietako bat erabakiak hartzea eta erabakien jabe izatea da, eta hori adimen artifizialaren esku uzten badugu, gure gizatasuna ere haren esku uzten ari gara, eta deshumanizazio prozesu bat hasten da orduan. Pixkana-pixkana, gero eta gehiago eta gero eta errazago ari gara gure ahalmenak eta gizaki izateko modua teknologiaren esku uzten.

Jon Mentxakatorre, unibertsitateko irakaslea

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PREGOIA JO. → Isilik gorde beharrekoak mundu guztiari esan. “Egixa izanda be, ez daukazu pregoia jo beharrik”.

PREMIXUA ATARA DAU. → Tokatu zaio. “Lehelengo premixua atara dau, gabonetako loterixan”.

PRIJI-ARRAIN. → Prijitzeko erabiltzen den arraina. “Priji-arraina, astiro mahaixan izatera, jatekorik gozuenetakua”.

1966

Oporretako
exodoa

Argazkia urte horretakoa izan arren, horrelako irudiak hainbat urtetan errepikatu ziren, Eibar-ko industriaren loraldiak iraun zuen bitartean. Udako oporrak ailegatzean, Untzaga, Txaltxa Zelai, Zezenbide.... autobusez betetzen ziren, Eibarrera lanera etorritako jendea beraien jaioterrietara eramateko.

PLAZAOLA



Farmaziak

BARIXAKUA 4
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
ZAPATUA 5
EGUNEZ Morgado (San Agustin, 3)
DOMEKA 6
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
ASTELEHENA 7
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
MARTITZENA 8
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
EGUAZTENA 9
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
EGUENA 10
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
BARIXAKUA 11
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)

GAUEZ BETI, 2026an,
Elortza (J. Gisasola, 18)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekuia	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- Maria Aizpurua Olaizola. 86 urte. 2026-07-15.
- M^a Blanca Villanueva Gonzalez. 97 urte. 2026-07-15.
- Rosa Etxebarria Ramos. 84 urte. 2026-07-15.
- M^a Blanca Villanueva Gonzalez. 97 urte. 2026-07-15.
- Dolores Blanco Soldado ("Lola"). 87 urte. 2026-07-17.
- Itziar Astigarraga Elordi. 82 urte. 2026-07-17.
- Eusebio Garcia Estevez. 82 urte. 2026-07-20.
- Ignacio Vergara Arrieta "Axio". 65 urte. 2026-07-23.
- Juana Barayazarra Bilbao. 94 urte. 2026-07-24.
- Jose Antonio Maiora Gonzalez de Andikana. 86 urte. 2026-07-24.
- Angel Jaureguibarria Pagoaga. 84 urte. 2026-07-28.
- Felisa Rubio Gomez. 85 urte. 2026-07-28.
- M^a Asuncion Solozabal Ziorraga. 98 urte. 2026-07-29.
- Mariseve Gallastegi Gallastegi. 80 urte. 2026-07-30.
- Jesusa Odriozola Agirrebeña. 91 urte. 2026-07-30.
- Adrian Andrade Olave. 60 urte. 2026-08-01.
- Nerea Aizpun Gonzalez. 75 urte. 2026-08-03.
- Maite Uribarri Garitazelaia. 78 urte. 2026-08-03.
- Fernando Martinez Alonso. 57 urte. 2026-08-03.
- Ruben Etxaniz Etxaniz. 60 urte. 2026-08-07.
- Ignacia Larrañaga Garmendia. 86 urte. 2026-08-11.
- Lucia Larruskain Garitagoitia "Lutxi". 91 urte. 2026-08-11.
- Valentin Guruzeta Retolaza. 83 urte. 2026-08-11.
- Ibon Jorge Alberdi. 50 urte. 2026-08-11.
- Juanita Aranberri Lopez. 94 urte. 2026-08-21.
- Jorge Manuel Isasi Isasi. 77 urte. 2026-08-25.
- Maria Aparicio Ramos. 96 urte. 2026-08-25.
- Jose Luis Lopez Barrena "Txeluis". 73 urte. 2026-08-27.
- Perfecto Dieguez Gomez. 81 urte. 2026-08-28.
- M^a Carmen Alberdi Alonso. 85 urte. 2026-08-28.
- Santiago Bedayo Aracama. 105 urte. 2026-08-28.

Obrak izan dira udako protagonista nagusiak

Uda honetan ez da atsedenik izan Eibarko obrentzat. Urteroko martxan, abuztuan jende asko herriitik kanpora ibiltzen dela aprobetxatu dute herriko kale eta auzoetan hainbat jarduketa egiteko, hiri-espazioak berritzeko, irisgarritasuna hobetzeko, eta bideak egoera onean mantentzeko helburuarekin.

SILBIA HERNANDEZ

Eibarko Udalak azken hilabeteotan hiru berrurbani-zazio-jarduketa garrantzitsu egin ditu herriko hainbat puntutan. Horrela, Bustinduitarren, Mutiola, eta Mekola eta San Juan kaleen arteko pasealekuaren oztopo arkitektonikoak kendu, azpiegiturak berritu eta espazio publikoak eraldatu dira, “irisgarriagoak, seguruagoak eta funtzionalagoak izan daitezen”. Guztira, esku-hartzeek 1,5 milioi euro inguruko inbertsioa izan dute, eta herriko hiru ingurune estrategiko modu integralean berritzeko aukera eman dute.

Aipatutakoekin batera, beste lan nabarmenenetako bat Arragueta kalean egiten dihardutena da. proiektuak galtzada eta espaloiak berritzea, eta oinezkoentzako espazioa hobetzea jasotzen du. Obrak hasieran irailean amaitzea aurreikusten bazen ere, enpresa adjudikaziodunak epeak luzatzea eskatu du, eta kalea urriaren 15ean zabaltzea aurreikusten dela esan du aste honetan Jon Iraola alkateak.

Asfaltatze-lanak ere presentzia izan dute udako egutegian. San Kristobal kalean, batetik, eta Galizia pasealekuan eta Txontan, bestetik, galtzadak berritzeko lanak egin dira. Bestalde, Ego Gain kalean galtzadabarrien mantentze- eta konponketa-lanak trafikoa eta autobus-zerbitzuan behin-behineko aldaketak eragin zituzten abuztuaren erdialdera, lanak amaitu arte. Eta Ubitxa inguruan ere hainbat hobekuntza egin dira.

Obra eta bestelako konponketa-lanekin batera, beste hainbat gertaera izan dira protagonista. Osasun



Eibarko anbulatorioa konpontzeko milioi bat euroko inbertsioa egingo du Osakidetzak, uda honetan iragarri dutenez.

arloan, salmonellosi agerraldiak 29 pertsonari eragin die, eta Osasun Publikoa ikerketa egiten aritu da, agerraldiaren jatorria zehazteko. Bestalde, abuztuaren hasieran izandako istiluek oihartzun handia izan zuten. Gertaeren ondorioz, bederatzi agente zauritu eta hamaika lagun atxilotu zituzten.

Bittor Sarasketan 19 zuzkidura-etxebizitza egiteko lanak irailean hasiko dira berriro

Azpiegitura eta zerbitzu publikoen alorrean, Eibarko anbulatorioa berritzeko milioi bat euroko inbertsioa iragarri da. Era berean, Murrategi auzoa biziberritzeko hiru milioi euroko finantzaketa lortu da, auzoaren ingurune eta mugikortasun baldintzak hobetzeko.

Eta, epaitegi zaharrean etxeak eraikitze lanak hilabeteetan geldirik egon eta gero, Udalak iragarri duenez, Bittor Sarasketa kaleko 19 zuzkidura-etxebizitza egiteko lanak irailean hasiko dira berriro, “proiektua amaitzea eragotzi zuten gorabehera teknikoak konpondu ostean”. Sustapena bi erakunderen arteko akordioaren emaitza da: Eusko Jaurlaritzak, eraikinaren titularrak izanik, bere gain hartu zuen epaitegi zahararen birgaitze integrala, zuzkidura-bizitoki bihurtzeko, eta, aldi berean, sotoa eta beheko solairuaren zati bat Udalari laga zizkion, udal-erabilerarako.



Sansaburu, San Andres eta Arrateko Andra Mari ikastetxeetan jolastokiak konpontzeko lanean aritu dira.



LAMINAZIOZ EGINIKO ZEHAZTASUN HANDIKO HARIAK BULOI ETA TORLOJUAK HUSILO ETA AZKOINAK



Erisono Industrialdea, 3
20600 Eibar
tlf. 943 121 308
943 121 312
www.rlapeyra.com



Ogasunaren arreta zerbitzua Arragueta kaleko ohiko kokapenera itzuli da

S.H. Gipuzkoako Ogasunak Eibarraren duen herritarrentzako arreta zerbitzua ohiko kokapenera, Arragueta kalera itzuli da, instalazioetan egindako eraberritze eta hobekuntza lanak amaitu ostean. Lanek iraun duten bitartean, aurrez aurreko arreta Bittor Sarasqueta kalean, aldi baterako zabaldu zuten bulegoan eman dute. Aurretantzean, ordea, herritarrek berriro Arragueta kaleko 2. zenbakiko

bulegoan artatuko dituzte, ohiko ordutegian: 08:30etik 14:00etara. Gipuzkoako Foru Aldundiak azaldu duenez, lanen bidez aurrez aurreko arretarako instalazioak hobetu dituzte. Horrela, Eibarko eta inguruko herritarrek izapideak eta kontsultak ohiko kokalekuan egin ahal izango dituzte berriro. Eibarko bulegoa Gipuzkoako Ogasunak herritarrei arreta emateko duen zazpi bulegoko sarearen parte da.

Arrateko Amaren omenezko meza bereziak ospatuko dira aurten ere

S.H. Urtero bezala, San Andres parrokiatik hainbat meza berezi antolatuko dituzte, Arrateko Amaren omenez. Horrela, abuztuaren 30ean hasi ziren Bederatziurrena ospatzen, eta irailaren 7ra arte egunero elkartuko dira Karmengo Amaren elizan, 19:00etako mezaren aurretik, 18:30ean errosarioa eta bederatziurrena erreztatzeko. Irailaren 7an, berriz, meza eta Salbea egingo dira Arrateko santutegian, 18:00etan. Eta irailaren 8an, Arrateko Amaren egunean, hiru meza egingo dira, Arrateko santutegian: 09:30ean, 11:00etan (Meza Nagusia, prozesioarekin), eta 13:00etan.





Ruben Etxaniz Etxaniz

2026/08/07

“ERRO, lagun handia izan zara, beti hor dana ematen, bihotz erraldoia. Zenbat barre, zenbat istorio eta zenbat oroitzapen ahaztezin elkarrekin! Eskerrik asko horren lagun paregabea izateagatik. Beti gurekin, bihotzez”

- ZURE KUADRILLA -





Ruben Etxaniz Etxaniz

2026/08/07

“Elkarteari horrenbeste eman dion lagunari”

...eta kitto!
Euskara Elkarteko langileak





Martxan da Egoaziaren “Eibar Eraldatuz” kontsumo arduratsuaren kanpaina

S.H. Egoazia GKE-ak *Eibar Eraldatuz* saltoki-sarea indartu du, Eibarren kontsumo arduratsua eta gertukoa sustatzeko kanpaina baten bidez. *Ohitura txikiek herria eraldatzen dute* lelopean, kanpainak *Eibar Eraldatuz* sareko saltoki eta zerbitzuak ezagutzera, eta bertan kontsumitzera gonbidatzen du. Partehartzea oso erraza da: kanpainarekin bat egin duen saltokiren batean zerbait erosita doan eskuratuko da *Eibar Eraldatuz Txartela*. Ondoren, sareko

hiru establezimendu desberdinetan erosketak egin eta hiru zigilu, sinadura edo kode online lortu beharko ditu.

Txartela osatutakoan, urriaren 24an Errebalen egingo den Eibarko XII. Kontsumo Arduratsua-ren Azokan trukatu ahal izango da: baliozko txartel bakoitzeko 5 euroko bale bat emango da, aleak agortu arte. Balea kanpainan parte hartzen duten edozein saltoki edo zerbitzutan erabili ahal izango da, 2026ko abenduaren 15era arte.



Eibarko Ospitala plasma-bilketako Euskadiko zentroen sarean sartu da

S.H. Euskadik plasma emateko puntu berri bat du Eibarko Ospitalean, Debabarreneko ESIaren eta Osakidetza Transfusio eta Giza Ehun-en Euskal Zentroaren (TGEEZ) arteko lankidetzari esker. Azaldu dutenez, prozedura erraza da, gutxi gorabehera ordubetekoa, eta, horretarako, aurretiko hitzordua eskatu behar da. Zita Osakidetzaren Atari Mugikorraren bidez eskatu daiteke. Aplikazio horren bidez, hitzorduen kudeaketa, odol-taldea eta emaitza-alertak ikus daitezke. Osakidetzaren webgunearen bidez ere eskatu daiteke, Euskadiko Odol Emailek webguneako atal espezifikoan, edo telefonoz, 900 30 34 04 telefonon.

MUGIKORTASUNA GUZTIONTZAT!

IRAILAK 19, LARUNBATA

BIGARREN ESKUKO BIZIKLETEN AZOKA ETA KONPONKETA TAILERRA

10:00-14:00, Untzaga Plaza. Azokan parte hartzeko ezinbestekoa da aldeaz aurretik izena ematea: 943 67 02 49 / www.merkabi.eus/eibar

BIDE HEZKUNTZAKO HAUR ZIRKUITUA ETA GINKANA

17:00 - 19:30, Untzaga Plaza (Euria egiten badu, Errebal Plazan).

Adina: 5-12 urte / Ezinbestekoa da bizikleta edota patinetara eikartzea

IRAILAK 22, ASTEARTEA

AUTORIK GABEKO EGUNA

Udaltzura doazinek

www.merkabi.eus/eibar

MUGIKORTASUNARENEUROPAKOASTEA

SEMANA EUROPEA DE LA MOVILIDAD

JAVIER MELLADO “ENANO”RI MUSIKAZ BETERIKO OMENALDIA EGINGO DIOTE BIHAR, IRAILAK 5

15 TALDEK HARTUKO DUTE
PARTE ERMUKO MUSIKARIAREN
OMENEZKO EKITALDIAN;
KONTZERTUA 19:00ETAN
HASIKO DA CARDENAL ORBE
PLAZAN.



Javier Mellado “Enano” ermuarrari omenaldia egingo diote bihar, irailak 5, bazkari eta kontzertu baten bidez. Lagun eta taldekide izandako 15 taldek hartuko dute parte ekitaldian, eta bakoitzak hiruzpalau abesti joko ditu. Kontzertua 19:00etan hasi eta gauerdian amaituko da, Ermuko Cardenal Orbe plazan. Omenaldian Waah!, Makis 37, Norbac, Nemon, Spunkgiforms, Mosh-all & Ms, SIN, Ekinocio, GEM, Storbais, Kokein, Hilkor, Heavy Duty eta Jacintonesn taldeek joko dute, besteak beste.



Antolatzaileek azaldu dutenez, Mellado Punk-Rock talde askotan aritu zen, baina 'Eskarmiento' izan zen bere proiektu garrantzitsuena, anaiarekin batera osatu zuena.

Ermuarra izanda, Eibarko Musikari Gazteen Elkartearekin ere lotura estua izan zuen, eta ordu asko eman zituen Legarreko lokaletan, besteak beste, Walter Tuzzeo lagun minarekin. Goitik behera berritu zuten grabaketa-estudioa, aurrekontu oso txikiarekin eta birziklatutako materialak erabiliz. Mellado, gainera, teknikari laguntzaile aritu zen hainbat talderen grabaketetan.

Apirilaren 22an hil zen Mellado, 49 urte zituela. Haren gertukoek diotenez, “ezagutu dugunontzako eredu bat izan da Javi arlo pertsonalean, osasun arazoei beti aurre eginez umoretik”. Horregatik, “betirako” horrela gogoratuko dutela adierazi dute.

Ekitaldia Beti-Txarto Ermuko Musikarien Elkar-teak eta Ermuko Udalak antolatu dute.

DEBABARRENEAN ZEHAR



'DEBABARRENEAN ZEHAR', FORMATU BERRIEKIN

Denboraldi berriarekin batera, Debabarrenean zehar saioak ere itxura berria hartuko du. Hemendik aurrera, eskualdeko istorioak, bitxikeriak eta gai interesgarriak modu arinago eta zuzenagoan ekarriko ditugu sare sozialetara: bideo motzagoak izango dira, erritmo bi-ziagokoak eta kontsumitzeko errazak.

Horrez gain, hilabetea behin formatu luzeago eta landuago bati eutsiko diogu YouTube-n. Bertan, Debabarrenari lotutako gai sakonagoetan murgilduko gara, patxadaz eta xehetasun gehiagorekin.

Formatuak aldatu arren, helburua bera izango da: Debabarrena ezagutzen, kontatzen eta deskubritzen jarraitzea.

ALBISTEAK

Irailaren 18an amaituko da Debabarreneneko Aisialdiko Begirale ikastaroan izena emateko epea.

Lurraldebusek ohiko erre-
fortzuak jarriko ditu berriz
astelohenetik aurrera.



Irailak 4

JAIK	SAN ANTOLIN JAIK	18:30	ARRIAGA AUZOA (ELGOIBAR)
ERAKUS.	BAROJA COLLET "OSATU GABEA"	19:00	OREKA ART GALERIA (SORALUZE)
IBILALD.	"LASTUR FAMILIAN" BISITA GIDATUA	11:00	SAN NIKOLAS PLAZA (ITZIAR)
MERKAT.	MERKATU TXIKIA	09:00	PLAZA ZAHARRA (DEBA)
AZOKA	KOOPERAZIO TALDEAREN ELKARTASUN AZOKA	11:00	UDALETXEKO ARKUPEA (DEBA)
MOBILIZ.	CEUTAN, INDARKE- RIA GEHIAGORIK EZ	19:00	HERRIKO PLAZA (ERMUA)
AURKEZ.	'DEBAKO SURFAREN HISTORIA' FANZINE AURKEZPENA	19:00	KULTUR ELKARTEA (DEBA)

Irailak 5

KONTZ.	JAVI "ENANO" RI OMENALDIA	19:00	ORBE PLAZA (ERMUA)
JAIK	SAN ANTOLIN JAIK	16:30	ARRIAGA AUZOA (ELGOIBAR)
JAIK	SAN MARTZIALGO JAIK	09:00	SAN MARTZIAL (SORALUZE)
ERAKUS.	BAROJA COLLET "OSATU GABEA"	19:00	OREKA ART GALERIA (SORALUZE)
IRTEERA	"LASTUR FAMILIAN" BISITA GIDATUA	11:00	SAN NIKOLAS PLAZA (ITZIAR)
JAIA	DEBASKET SASKIBA- LOI KLUBAREN 10. URTEURREN FESTA	10:30	ZUMARDIA (DEBA)

Irailak 6

IRTEERA.	DEBATIK ZUMAIARA ITSASONTZIZ	13:30	ANES ARRINDA (DEBA)
ERAKUS.	BAROJA COLLET "OSATU GABEA"	19:00	OREKA ART GALERIA (SORALUZE)
AZOKA	KOOPERAZIO TALDEAREN ELKARTASUN AZOKA	11:00	UDALETXEKO ARKUPEA (DEBA)

Eibarko salmonellosi agerraldiaren gakoak

Eibarren 29 salmonellosi kasu identifikatu zituzten abuztuaren 9an taberna batean tortilla kontsumitu ondoren. Osasun Sailak hainbat gabezia aurkitu zituen arrautzen trazabilitatean, tresnen garbiketan eta tortillaren kontserbazioan. Bederatzi pertsona ospitaleratu behar izan zituzten, eta abuztuaren 25rako alta emanda zeuden denak.

Testua **IRATI ALVAREZ MALAXETXEBARRIA**

Domeka arratsaldea zen, abuztuaren 9a. Gasteizko jaietan aurreko biegunak eman ondoren, Malen gazte eibartarra herrira itzuli zen lagunekin. Taberna batera joan, tortilla-pintxoak eskatu eta lagunekin jarraitu zuen eguna. Kuadrillako bakarria izan zen tortilla jan zuena. «Jan ostean ez nuen ezer berezirik sentitu. Kontrara, oso ondo nengoen», gogoratu du.

Hurrengo eguna ere normaltasunez hasi zuen. Arratsaldean, Ixuara bidean, tripa «arraro» sentitzen hasi zen. Eibarrera bueltatu zirenean, bederatzia aldera, komunera joan zen lehenengoz. Handik gutxira, hotzikarak eta 38 graduuko sukarra izan zituen. Hasieran, gastroenteritisa izango zela pentsatu zuen.

Hurrengo orduetan, ordea, egoerak okerrera egin zuen. Behararako gero eta sarriagoa zen, eta

ordu erdiro ere joaten zen komunera. Martitzenean gurasoengana Oviedora autobusez joatekoa zen, baina hain gaizki zegoenez, bidaia bertan behera utzi behar izan zuen. Sukarra, beherakoa eta hotzikarak zituen, eta deshidratatzen ari zela sumatzen zuen. «Egoera okertzen ari zela ikustean, banekien ez nengoela ondo eta neukana ez zela gastroenteritisa», dio.

Mendaron hasi ziren kasuak lotzen

Egoerak okerrera egin ahala, Malen Eibarko Ospitaleko urgentzietara joan zen aitona-amonekin. Hasieran, gastroenteritisa izan zitekeela baloratu zuten eta etxera bidali zuten. Biharamunean, ordea, sukarra igo zitzaion, goraka hasi zen eta likidoak hartzeko ere zailtasunak zituen. botika batera joan zen lehenik, eta handik Mendaroko Ospitalera bideratu zuten.

Mendaron, zer jan zuen galde-tu zioten. Osasun-langile batek Eibarko tabernaren batean tortilla-pintxorik jan ote zuen galdetu zion, eta «X» tabernan igandean tortilla jan zuela erantzun zion. Handik gutxira, antzeko sintomak zituen beste emakume bati ere galdera bera egin zioten. Orduan hasi ziren bi kasuak lotuta egon zitezkeela susmatzen. «Hogei minutu inguru igaro ondoren, langile batek elikagai-intoxikazioa genuela esan zigun», gogoratu du.

Martitzenean bertan atera zioten gorozki-lagina. Hasierako txostenean elikagai-intoxikazioa eta gastroenteritis akutua ageri ziren, eta tortilla-pintxoaren aipamena ere jasota zegoen. Egun batzuk geroago jakin zuen salmonellosi-agerraldiaren kasuetako bat izan zela. «Badakizu salmonellosia existitzen dela, baina ez duzu uste horrelakorik gertatu ahal zaizunik», dio.

29 kasu, 21 baieztatu

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak abuztuaren 25ean jakinarazi zuenez, 29 salmonellosi kasu identifikatu zituzten Eibarren. Horietatik 21 proba mikrobiologikoen bidez baieztatu zituzten, eta zortzi probable gisa sailkatu. Eraginpeko 29 lagunetatik 25ek osasun-arreta behar izan zuten, eta bederatzia ospitaleratu zituzten. Denak alta emanda zeuden abuztuaren 25erako.

Gipuzkoako Zaintza Epidemiologikoko Unitateak abuztuaren 11n jaso zuen agerraldiaren berri, Osakidetza salmonellosi-agerraldi baten susmoa jakinarazi ondoren. Ikerketa orduan abiatu zuten, agerraldiaren irismena zehazteko, inplikaturako elikagaiak identifikatzeko eta beharrezko neurriak hartzeko.

Horrelako agerraldiak ikertzeko, hiru arlo hartzen dira kontuan: epidemiologia, elikagaien segurtasuna eta mikrobiologia. Bate-tik, kaltetuei elkarriketak egiten zaizkie eta kasu berriak bilatzen dira; bestetik, establezimendua eta elikagaien hornidura-katea ikuskatzen dira; eta, azkenik, lagin klinikoak, elikagaiak, lehengaiak eta manipulatuzaileen laginak aztertzen dira. Eibarko agerraldian ere bide horiek guztiak jarraitu zituzten.

Eraginpeko pertsonen laginetan *Salmonella* Enteritidis bakterioa hauteman zuten.

Tortilla, agerraldiaren erdigunean
Ikerketaren arabera, abuztuaren 9an kontsumitutako tortillak dira agerraldiarekin lotura izateko pro-



Abuztuaren 9an kontsumitutako tortillak dira salmonellosi-agerraldiarekin lotura izateko probabilitate handiena dutenak.

babilitate handiena dutenak. Osasun Sailak, hala ere, ez du zehaztu arrautza jakin bat kutsatuta zegoenik, ezta kutsaduraren iturri bakarra identifikatu ere.

Agerraldian eragina izan zezaketan hainbat faktore identifikatu zituzten. Besteak beste, tortillen tratamendu termikoa behar bezalakoa ez izatea, prestatu ondoren hozkailuan ez gordetzea eta elaborazioan kutsadura gurutzatua gertatu izana aipatu zituen Osasun Sailak.

Establezimenduan egindako ikuskapenek ere hainbat gabezia agerian utzi zituzten: arrautzen trazabilitatean, tresnen garbiketan eta desinfekzioan, tortillen kontserbazioan eta kutsadura gurutzatua saihesteko neurrietan.

Beraz, ikerketak ez zuen hutsune bakar bat identifikatu, elikagaia- ren manipulazioan eta kontserbazioan hainbat gabezia baizik. Arrautzen trazabilitatea kontrolatzea, tresnak behar bezala garbitu eta desinfektatzea, tortilla behar bezala kozinatzea eta kontsumitu arte tenperatura egokian gordetzea funtsezkoak dira elikagaien segurtasuna bermatzeko.

Salmonella, arrautzatik harago

Salmonellosia *Salmonella* bakterioek eragindako infekzioa da, eta elikagai kutsatuak kontsumitzea da kutsatzeko bide nagusietako bat. Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) arabera, arrautzak, haragia, hegaztiak eta esnea dira bakterio horren iturri garrantzitsuenetakoak.



>>> Tortilla izan zen agerraldiaren erdigunea, baina ikerketak elikagaien manipulazioan eta kontserbazioan hainbat gabezia aurkitu zituen

ko batzuk. Pertsonen artean ere transmititu daiteke, kutsatutako pertsona baten esku edo gainazalaren bidez, esaterako.

Horregatik, salmonellosia ez dago arrautzari lotuta soilik. Arrautza kutsatu batek infekzioa eragin dezake, baina elikagaiak gaizki manipulatzek ere kutsadura gurutzatua ekar dezake. Adibidez, elikagai gordin batekin erabilitako tresna edo gainazala behar bezala garbitu gabe beste elikagai batekin erabiltzen bada, bakterioa elikagai batetik bestera pasa daiteke.

Kutsadura saihesteko, OMEk bost oinarri nagusi nabarmen-tzen ditu: garbi edukitzea; elika-

gai gordinak eta prestatuak be-reiztea; behar bezala kozinatzea; elikagaiak tenperatura seguruan mantentzea; eta lehengai eta ur seguruak erabiltzea.

Heriotza bat, oraindik argitu gabe

Agerraldiaren inguruko informazioa zabaldu zenean, beste gertakari baten berri ere eman zen: abuztuaren 11n gizon bat hil zen Eibarren, bere etxean. El Correo-k argitaratu zuenez, gizonak behe-rakoa, sabeleko mina eta sukarra zituen, eta hainbatetan deitu zuen larrialdi-zerbitzuetara.

Heriotza, ordea, ez dago ofizialki Eibarko salmonellosi-agerraldia-rekin lotuta. Osasun Sailak ez du

bien arteko harremanik baieztatu, eta abuztuaren 25ean argitara-tutako informazioan 29 kasuak aipatu zituen, bederatzi ospitale-ratzeak barne.

Beraz, gaur-gaurkoz, Eibarren 29 salmonellosi kasuko agerraldia baieztatuta dago, baina ez dago baieztatuta gizonaren heriotza age-raldi horrekin lotuta dagoenik.

Elikagaien segurtasuna, kate osoa-ren ardura

Eibarko agerraldiak erakutsi du elikagai bat segurua izan dadin ez dela nahikoa azken urratsa zain-tzea. Arrautza behar bezala gor-detetik hasi, elikagaiak modu egokian manipulatzeko eta kozi-natzen jarraitu, eta kontsumitu arte tenperatura egokian manten-du: prozesuko urrats bakoitzak eragina du. Horietako batean huts egiteak kutsadura eragin dezake, eta horrek, azken batean, osasu-nean eragin.

ARRA- TEKO JAIXAK



2026

UDALAREN EGITARAU

07 BEZPERA

18:00 Meza, salbea, txupinazoa eta kanpai errepika.

19:00 Herri kirolak.

21:00 Bertso Afaria.

Bertsolariak: **Andoni Egaña, Maddi Ane Txoperena, Saioa Alkaiza eta Aitor Mendiluze.**
Tiro Pitxoi jatetxean. Antolatzailea: ...eta kitto!

08 ARRATE EGUNA

10:00 Arraterako igoera pausoetatik. Irteera Azitaindik. Salda, txorizoa eta ardoa.
Zesteroko iturrian.

10:00 Kittonbola! Antolatzailea: ...eta kitto!

10:30 Kalejira Usartza Txistulari taldearekin.

11:00 Meza Nagusia, Arrateko Amaren ezpata-dantza eta prozesioa: Usartza Txistulari taldeak, Jainaga eta Narbaiza trikitilariak, Kezka Dantza Taldeak, bertsolariek eta agintariek lagundurik.

12:30 Arrateko Amaren Dantzen aurkezpena. Zelaian.

13:30 Jainaga eta Narbaiza trikitilariak eta **Millan Telleria eta Loidisaletxe.**

17:00 Bertsolarien saioa: **Millan Telleria eta Loidisaletxe.**

17:00 - 20:00 Aisialdi-eremuan alkohol kontsumoari lotutako arriskuak prebenitzeko eta murrizteko kanpaina. Garaia elkartea.

17:30 Dantza solte txapelketa. 10 bikote gonbidatu.

18:00. Arrateko Amaren Hiru Txirlo Saria.

18:30 - 20:30 Dantzaldia/berbena **Mugi Panderoa**arekin.





info@gerritek.net www.gerritek.net
Txantxa-Zelai, 4-6. Tel. 943 03 38 92

Neurrira egindako
software-aren
garapena

Marka guztietako
zerbitzu teknikoa
eta salmenta



EPA EIBAR HHI MATRIKULAZIOA - Irailak 2-11

ESKAINTZA

• LH OINARRIZKO EZAUTZAK

- ULERMENA
- IRAKURKETA
- MINTZAIRA
- IDAZMENA

• DBH

- UNIBERTSITATE ETA ZIKLOETARAKO SARRERA
- EUSKARA
- GAZTELANIA ATZERITARRENTZAT
- INGEELESA
- INFORMATIKA

ASTELEHENA: 10:00-13:00

ASTEARTEA: 10:00-13:00 / 15:00-18:00

ASTEAZKENA: 10:00-13:00

OSTEGUNA: 10:00-13:00 / 15:00-18:00

OSTIRALA: 10:00-13:00



943 20 88 56 / 673 11 81 81

ISASI, 39

"TIRO PITXOI JATETXEA" ARRATE

TERRAZA EDERRA BISTA PAREGABEEKIN 943 20 88 59



MENUA ETA KARTA AUKERAN
Irailaren 11tik aurrera astelehenetan Ibita

MATRIKULA Adolfo ZABALIK JAINAGA

Urki, 25-1. ezk.
943 20 62 66
676 72 95 51

**Trikitixa
eta Pandero
Eskola**



943 20 17 33
eibarbus@eibarbus.com
www.eibarbus.com

*Betidanik
esku onetan!*

Isasi, 20



LEGE AHOLKULARITZA / AUDITORIA

Gaurve

Tfnoa. 943 202 461

Fermin Calbeton, 13-15

Faxa. 943 201 125

www.gaurve.es



Baimendutako
harategia
Euskal Okela
Carnicería
autorizada

Bidebarrieta, 20
Especialistak plater prestatu eta haragi bikainetan

ETXERA ERAMATEN DIZUGU

943 20 16 69



JAIXAK HERRIXAK HERRIXANDAKO EGITARAUA

07 BEZPERA

08:30 Montajearen hasiera.

14:30 Bazkari autogestionatua.

18:00 Txosnen irekiera.

Ondoren Elektrotxufla elektrotxaranga.

22:30 Kontzertuak
Maruxak
Bad Sound Dj Set

08 ARRATE EGUNA

12:00 Etxera! elkarretaratzea.



SOBA KOLEKTIBOAREN EGITARAUA

07 BEZPERA

19:00etatik aurrera Dj saioak:

ACE
Ander Race
Beato
Txima
Santos & Oru



eskolara buelta!

elite

EQUIPAMIENTO DE OFICINAS

ISASI kalea, 29

BEHAR DUZUN GUZTIA / MARKA ONENAK
KALITATE ETA ZERBITZU BIKAINENA

943-200030 elite@eliteoficinas.es www.eliteoficinas.es

Eskola-materiala,
papertegia, motxilak,
idazmahaiak, aulkiak...

MUSIKA ESKAINTZA

irailak 07

ELEKTROTXUFLA

Euskal Herriko elektrotxaranga sarituenetakoa da Elektrotxufla, sarituena ez bada. 2014an sortu zuten taldea, Pasaian, eta ez badira gure lurraldeko plaza guztietan egon, gutxi faltakozaizkie. Arratera ere iritsiko dira! Aurten abeslaria aldatu arren, elektrotxaranga ez du bere esentzia galdu. Ondo lotu zapatilak, dantzan jarriko zaituztete eta!



MARUXAK

Mendillorriko kolektiboak euskal tradizioa, musika, dantza eta drag-a uztartzen ditu. Horrela laburbiltzen dute egiten dutena: "Folklore trabestia". Orain dela lau urte izan genituen Arraten eta aho zapore ona laga zuten. Azken urteotan ospea irabazi eta 'Eskuminak' lehen EP-a kaleratu ondoren, berriz gozatuko dugu eurekin Arraten.

BAD SOUND SYSTEM DJ SET

Irungo Mosku auzoan sortutako Bad Sound System taldekoek musika saioa eskainiko dute Arraten. Hauda, bandak ez dujoko, musika jarriko dute. Baina nolako musika! Selektu Step DJ-aren eskutik, jamaikar soinuak, dancehall-a, rap-a eta baxu sendoak nahastuko dituzte DJ set formatuko saio indartsu honetan.





ZELAIAN

Natura eta musika elektronikoa uztartzen ditu Soba kolektiboak sortutako Zelaian jaialdiak. Arrateko gurutzearen inguruan dantzatzeko aukera emango dute, hirugarren urtez, estilo ezberdinak lantzen dituzten DJ-ek: ACE (UKhose, melodic, indie house...), Ander Race (melodic, house, deep house...), Beato (disco, house, progressive...), Txima (house, deep house, breakbeat...) eta elektronika eta saxofoia uztartzen dituzten Santos&Oru (house, deep tech, indie...).



irailak 08

MUGI PANDEROA

Eibarko erromeria taldea ezin da falta Arrate Egunean. Arratsaldean hasi eta gauera arte jarriko du dantzan zelaia, datorren eguneko biharamunari begiratu gabe. Taula gainean gozatzeko eta behean daudenak gozarazten dituzte, estilo ezberdinetako abestiak uztartuz eta adin guztietako jendeari 'panderoa' mugiaraziz.



Arrate Eguna ospatzeko proposamen berria Zaporeak, Tekniker eta Eibarko Klub Deportiboaren eskutik

Arrate Eguna dela eta, Tekniker, Eibarko Klub Deportiboa eta Zaporeak elkarrekin elkartu egin dira ekimen berri bat martxan jartzeko. Egun horretan Arratera 'pausoetatik' oinez igotzeko ohitura dagoenez, ibilbide horretan Eibarko historia eta identitatea hobeto ezagutzeko eta bere etorkizunari buruz hausnartzeko aukera eman nahi diete herritarrei. "Eibar nolakoa izatea nahiko genuke 2050ean?", galderaren inguruan hausnarketa kolektiboa egingo da asmoa.



Horretarako, irailaren 8an egingo den ibilbide horretan hiru geldialdi egitea proposatuko dute. Lehen geldialdia Eibarko historiari eta ondareari eskainiko zaio. Jesus Gutierrez historialariaren eskutik, hiriko eboluzioa markatu duten gertaerak, lekuak eta elementuak ezagutzeko aukera egongo da.



Bigarren geldialdian Tekniker izango da protagonista, eta parte-hartzaileek bertan garatzen diren teknologia eta berrikuntza proiektu batzuk gertutik ezagutu ahal izango dituzte. "Eibarrekin lotura estua duen industria tradizioaren jarraipena irudikatzen dute", Teknikerrekoen berbetan.

Puntu horretan, Zaporearen eskutik hamaiketa-koak eta ur botilak erosi ahal izango dira bost euroren truke, ekimenari osagai gastronomiko eta solidarioa gehituz. "Gainera, itsulapikoak jarriko ditugu proiektuari laguntzeko", dioskue Zaporeakekoek.

Hirugarren geldialdian, parte-hartzaileek galdeketa labur bat bete ahal izango dute, eta zozketa batean sartuko dira. Saria Teknikerreko bisita gidatua egin ahal izatea izango da, instalazioak, teknologiak eta lan-lerroak sakonago ezagutzeko.

Deporteareko gidatutako ibilbidea egin nahi dutenentzat hiru talde antolatuko dira: 09:30ean, 10:00etan eta 10:30ean. Izena Teknikerreko webgunean eman daiteke.

AUTOBUS ZERBITZUAK DOAN

07 BEZPERA

- 17:00etatik 22:00etara /
- 01:00etatik 08:00etara
- 20 minuturo.
- Hiru autobus ibiliko dira.
- Autobusak Ego-Gainetik irtengo dira.

08 ARRATE EGUNA

- 08:30etik 23:30era
- Autobusak etenik gabe ibiliko dira gora eta behera.
- Bete ahala Toribio Etxebarriatik abiatuko dira.

Arrateko jaiak eta Kittonbolia eskutik datoz: euro baten truke, asko irabazteko

Arrateko jaiekin hasten du, nolabait, ...eta kitto! Euskara Elkarteak ikasturte berria. 2003an antolatu zuen lehenengoz Kittonbolia, eta ordutik Arrateko jaietako ezinbesteko hitzordu bihurtu da.

Aurten ere, martitzen goizeko 10:00etan zabalduko ditu ateak, eliza parean. Eta urte hauetan guztietan aldatu ez den zerbait ere badago: **boletoak euro bakarra balio du**. Bizitza eta eguneroko gastuak izugarri garestitu diren arren, ...eta kitto!-k prezioari eustea erabaki du. Gainera, sarien kopuruak eta balioak ere bere horretan jarraitzen dute: telebistak, afariak, urdaiazpikoak, motxilak, otarrak, txuletak, opari-txartelak eta beste hamaika sari egongo dira jokoan.

Baina Kittonbolia ez da soilik jaietako beste ekitaldi bat. ...eta kitto!-rentzat herri ekimen garrantzitsua eta beharrezkoa da, urte osoan **Eibarren euskararen alde garatzen dituen proiektuak aurrera eramateko ezinbesteko diru-sarrerak baita**. Izan ere, elkarteak jasotzen dituen dirulaguntzak ez dira nahikoak urtean zehar egiten duen jarduera guztia finantzatzeko. Gainera, dirulaguntza horietako asko urteko gastuak egin eta hilabete batzuetara iristen dira, eta horrek likidezia-arazo handiak sortzen dizkio elkarteari.

Kittonbolia, gainera, herriaren elkarlanaren emaitza da. Herriko elkarte, denda, taberna eta enpresen ekarpenari esker, milaka sari jartzen dira jokoan. Haien babesa, beraz, **euskararen aldeko inbertsioa ere bada**.

Eskerrik beroenak, hortaz, aurten ere Kittonboliarekin kolaboratu duten guztiei, eta baita Arrate egunean boletoak erostera hurbilduko zareten guztioi ere. **Euro baten truke, sari bat baino gehiago dago jokoan: Eibarren euskaraz bizitzen jarraitzeko aukera ere bai.**



LAGUNTZAILEAK

- ★ +QWAPOS
- AITZIBER BADIOLA



- AKARA TABERNA
- ALBERT TABERNA
- AMAÑAKO JAIK
- ARATATTO
- ARREGI DOMINGUEZ ARRAINDEGIA
- ARTOLA JATETXEA
- ASKASIBAR KIROLDEGIA
- ASPE PELOTA
- ATHLETIC CLUB FUNDAZIOA
- AZITAIN GASOLINDEGIA
- AZPIRI JOSTUNDEGIA
- AZPIRI SANEAMENDUAK
- BACOLEKU EGO-GAIN
- BACOLEKU URKIZU
- BAIASI TABERNA
- BALKOI TABERNA
- BALI GIMNASIOA
- BASAGUNEA
- BASOBIZIAK
- BELEKO
- BOLINTXO OKINDEGIA



- BORDA TABERNA
- BOSSY GOZOTEGIA
- BULEBÚ JATETXEA
- BURBUJAS Y MAS LURRINDENDA

- CAPI ESTETIKA
- CHIC ESTILISTAS
- CHIDO
- CLOSET
- COMERCIAL ZABALA
- CORRAL JOSTUNDEGIA
- DENETIK
- DEPOR TABERNA
- DEPOR ELKARTEA
- DIRDAI BITXITEGIA
- DITARE MERTZERIA
- EGUREN ELEKTRODOMESTIKOAK
- EIBAR IGERIXAN
- EIBARKO DENDARI ELKARTEA
- EIBAR ESKUBALOIA
- EIBAR RUGBY TALDEA
- EIBAR SASOIAN ONGIZATE ZENTROA
- EIBARBUS AUTOBUSAK
- EIBARKO TXIRRINDULARI ELKARTEA
- EIBARKO UDALA KULTURA SAILA



- EL CANTON DE LA AVENIDA



- ELITE OFICINAS
- ELORTZA BOTIKA
- EMANKOR TALDEA ERAIKUNTZAK



- EROSKI EIBAR HIPERMERKATUA



- ESKOZIA LA BRAVA
- EXCLUSIVAS JAVI
- GERRITEK INFORMATIKA
- GIGIL BITXIAK



- GOIKO LUZ
- GRATZINA JANTZIDENDA
- GUBY JANTZIDENDA
- GURE ESKU DAGO
- GURIDI TABERNA
- HARTARA ARTISAU OSAGARRIAK




- HELMET HOUSE
- HIRUROK ASTELENA GASTROBAR
- Í AM ILEAPAINDEGIA
- IBARKURUTZE FRUTADENDA



- IBONE ESTETIKA



- IDOIA BERGARETXE ESTETIKA
- INDATEAM
- INDUSTRIAS MAIL
- INDUSTRIAS ROSI
- INGURU ABENTURA
- IPAR SURF SKATE ESKOLA
- IREI ESTETIKA
- IRRITSA JANTZIDENDA



- ITXESI BELARDENDA
- IZADI LORADENDA
- IZANE
- JAUREGI
- JAZ ZUBIAURRE
- JERONIMO JOSTAILUDENDA



- JORGE VEGA S.L. IGELTSERITZA
- K2 BITXIAK ETA ESKULANAK
- KAMALA YOGA
- KANTOI GASOLINDEGIA
- KAXA



- KENKO OSASUN ETA ONGIZATEA
- KERALA ESTETIKA
- KILI-KLIK ARGAZKILARITZA



- KIÑU BURDINDEGIA
- KIA NAIA CAR
- KLAUS DEKORAZIOA
- KOKEIN TALDEA
- KOMEDIA FEST
- KONTENT TABERNA
- KOPINA JANTZIDENDA
- KOSKOR TABERNA
- KULTU TABERNA
- LABORAL KUTXA
- LAHIDALGA ZAPATADENDA
- LAKETT ESTETIKA
- LANDARE BELLEZA SALUDABLE
- LEDER POLTZO ETA OSAGARRIAK
- LOLA'S JANTZIDENDA
- LUSAI JATETXEA
- MARSÍ LOREDENDA
- MOAPICS
- MUGIKA HARATEGIA
- MUMA JANTZIDENDA
- NHAREA MASAJEAK
- NEURE DEKORAZIOA
- NO COMMENT JANTZIDENDA
- NUVOLA JATETXEA
- OBERENA HARATEGIA
- OGIBERRI MUXU

- ORIGINAL KOMUNIKAZIO GRAFIKOA



- OTEGI HARATEGIA URKIZU
- OTEGI HARATEGIA SOSTOATARREN
- PARRIAUNDI OKINDEGIA
- PISSA ZAPATADENDA
- PUBLIRESA PUBLIZITATEA
- S.D. EIBAR FUNDAZIOA
- SAN ANDRES GOZOTEGIA
- SHEIKO JATETXEA
- SOSOLA BASERRIA
- SU TA GAR TALDEA
- SUBEROA TABERNA
- TIRO PITXON JATETXEA
- TRINKETE TABERNA
- TUTULO OKINDEGIA
- TWINS JANTZIDENDA
- TXUKUNA MERTZERIA
- TXUTXUFLETAS GOZOKIAK
- UMEA JANTZIDENDA
- UNBE TABERNA
- URDANIBIA JANTZIDENDA
- URKOTRONIK
- USTEKABE TXARANGA
- XABALO
- XARE JANTZIDENDA
- ZAIZOI TABERNA
- ZELAI- BIDE TABERNA

ANTOLATZAILEA



Kartel bikaina bertso-afariaren 33. edizioan

Maddi Ane Txoperena, Aitor Mendiluze, Saioa Alkaiza eta Andoni Egañak jardungo dute aurtengo Arrate bezperako bertso-afarian, Jon Mikel Mujika gai-jartzailearen esanetara. 21:00etan hasiko da afaria Tiro Pitxon jatetxean eta ondoren ekingo zaio saioari. 1993an ...eta kitto!-ren eskutik abiatutako ekitaldiak 28 edizio bizi izan zituen Kantabria jatetxean, 2019ra arte. Pandemia tarteko, 2022an egin zen estrainezko Tiro Pitxonen eta aurren, beraz, bosgarrenez hartuko du saioa. Andoni da lau bertsolarien artean beterranoena Arraten. Zarauztarra 1993ko lehen edizio hartan izan zen eta harrezkero ia urtero etorri izan da. Gainerako hirurentzat lehen aldia izango da ...eta kitto! Euskar Elkarteak antolatzen duen bertso-saioan. Sarrerak salgai egongo dira domekara arte, irailak 6, Kultu, Guridi eta Tiro Pitxonen bertan.



Urriaren 3an ospatuko da ...eta kitto! Jaia

Ohiko datara itzulita, urriko lehenengo zapatuan, 3an, ospatuko dugu "...eta kitto! Jaia" euskara elkartearen eskutik. Jai giroan eta herritarrekin batera euskara erdigunera eraman eta musikaz zein sagardoaz gozatzeko aukera paregabea izango dugu eguerditik hasita jarraian (ez da etenik egingo). Txotxa zabaltzeko brindisarekin eta omenaldiarekin ekingo zaio jaiari. Sei sagardogileren sagardoa banatuko da txorizo eta gazta pintxoekin batera, eta beritasun moduan ogitartekoak ere izango dira aurren. Tiketak erosteko hiru aukera egongo dira: 10 euro (edalontzia + zapia + pintxoa); 5 euro (ogitartekoa) eta 2 euro (pintxoa).



Berbetan programak irailaren 22an ekingo dio ikasturteari

Modu ezinhobean ekingo dio gainera. Datorren irailaren 22an, martitzena, "Sardina freskue" izeneko ikuskizuna eskainiko du Eidabe konpainiak ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatzen duen Berbetan programa eta haren aldaerei hasiera emateko. Munduko doinu desberdinak bidelagun izanda eta ikusleen parte hartzea sustatuz, festa, elkarbizitza eta aniztasuna ospatzen dituen bidaia koloretsua eskainiko dute haur zein helduentzat. Ikuskizuna 18:00etan hasiko da Untzagan, harmailen aldean (euria egingo balu Errebalen).



DEPOR TABERNA
T. Etxebarria, 16 943 94 49 12
deportaberna@deporibar.com

- **ASTEBURUETAN** razioak, otartekoak, plater konbinatuak...
- **GOSARRIAK** egunero
- **TALDEENTZAKO** menuak egiten dira

Link Idiomas www.linkidiomas.com
Juan Gisasaola, 5
943 20 39 59

MEMBER OF CAMBRIDGE ESOL CENTRE ES438

-INGELESA- **KLASEAK GOIZ ETA ARRATSALDEZ**

UME, GAZTE ETA HELDUENTZAT
TALDE MUGATUAK
BAKOITZARI EGOKITUA
ERREKUPERAZIOAK, ESKOLARAKO LAGUNTZA
CAMBRIDGE AZTERKETETARAKO PRESTAKETA
MAILA GUZTIAK

Cambridge English Language Assessment

Exam Preparation Centre

ALTE

NEKANE PASTOR HIZKUNTZ AKADEMIA
Since 1977

- Klaseak 3 urtetik gorakoentzat
- Eskolarako laguntza
- Cambridge azterketak
- Summer Camp (UZTAILEAN)
- Ingalaterrara bidaiak (UZTAILEAN)
- Enpresak

laster 50 urte zuekin

Pagaegi, 8
943201393
650069674
625134161

info@idiomasnekanepastor.com www.idiomasnekanepastor.com



DEVI OM

YOGA ETA AYURVEDA ZENTROA

- Yoga klaseak
- Ayurveda masajeak eta terapiak
- Nutrizio, Osasun eta Ongizate kontsultak
- Terapia naturalak

☎ 641 512 059

TXALTZA ZELAI 20, BEHEA EZK (EIBAR)

Gestilan asesores

Zezenbide 4 - behea
Tel. 943 20 70 02
Faxa. 943 20 87 92

gestilan@gestilan.es
www.gestilan.es

ek!

Zure publizitatea herriko aldizkarian

688 621 535
publizitatea@etakitto.eus



ZURICH
Lejardi S.L. Aseguru Agentzia
Tel. 943 20 11 49 / Plaza Barria, 8 / Eibar



Musikaz gozatzen esango diogu agur udari Agorra Fest-ekin



Testua **EKHI BELAR ERRASTI**

Ustekabe txarangak musikaz beteko ditu Eibarko kaleak agorrillan. Noiz? Setienbrian? Noiz? Irailean! 25 urte bete dituen honetan, udari amaiera musikala emango dio horrela Ustekabek eta Agorra Fest deitu dio ekimenari. "Gure esentzia kalea da", diote, eta bertara eramango dute musika. Estilo ezberdinetako taldeak entzuteko aukera izango dugu kalejiran eta baita kontzertuetan ere, musikaz goatzeko gogoia ez baitaigu agortzen.

Informazio gehiago
Agorra Fest-en kontuan



Seguruenik dantza asko egin izan duzue udan. Jaietarako eta kontzertuetarako sasoi aproposa izan ohi da eta, Eibarren horren inguruan asko dakigunez, horrela jarraitzeko asmoa dugu sasoi agortu arte. Agorra Fest musika jaialdia sortu du Ustekabe Eibarko txarangak, Udalarekin elkarlanean, bere 25. urteurrena herritar guztiekin ospatzeko, eta hamar emanaldi programatu dituzte irailaren 11tik 13ra arte.

Jaialdia barixaku arratsaldean hasiko da, 18:30ean, Eibarko Bizikleta Plazan, Iruñeako 'Broken Brothers Brass Band' taldearen eskutik. Jon Zelestino musikari eta zirikatzaille musikala buru duen taldeak pare bat hamarkada daramatza Euskal Herriko kaleetara funk, gospel eta jazz modernoa ekartzen, New Orleanseko brass band-en antzera. 2019an izan genituen Portalean eta orain kalez kale izango ditugu, Agorra Fest jaialdiari hasiera paregabea emanez.

'Psycho Clown' taldeak hartuko dio lekukoa, 20:30ean, Toribio Etxebarria kalean. Proposamen bitxia dakar Psycho Clownek, perkusioa, piroteknia eta pailazoan antzerkia uztartzen baititu.

Euren ikuskizuna 22:00etan amaituko da Untzagan eta jaialdiko lehen kontzertua hasiko da jarraian. 'Goxua N'Salsa' izango da eszenatokira igoko den lehen taldea. Iruñeako taldeak salsa eta erritmo latinoak lantzen ditu euskaraz. Orkestra kolonbiar-nafarrak 60ko, 70eko eta 80ko hamarkadetan New Yorken, Kolonbian eta Puerto Ricon egiten zen salta klasikoa interpretatzen du, baina letretan ukitu berritzailea emanez.

Gaueko bigarren kontzertua 'Potato' talde arabarrak emango du. 80. hamarkadan sortua, reggae, ska, rocksteady eta dub estiloen aitzinda-

ria izan da Euskal Herrian, eta urte hauetan taldean aldaketak egon diren arren (2006an Juan txo Boriko sortzailea hil zen, 2007an taldea desegin zuten eta 2009an Pako Pko-k Potatoren ibilbideari berrekin zion), Euskal Herrian reggaeak bizi-bizirik jarraitzen duela erakusten du.

Zapatuko egitarauak egun osoa hartuko du. Goizean, 10:30etik aurrera, Elgoibarko gaiteroak eta erraldoiak egongo dira kalejiran, Errebaletik Urkizura, Untzagatik pasatuz. Eta, nola ez, `Ustekabe´ txarangak ere joko du. 12:30ean hasiko dira kalejiran eibartarrak, Urkizutik Untzagara herriko kaleak girotuz. Euren emanaldia 14:30ean amaituko da eta, 25. urteurrena behar den moduan ospatzeko, bazkari herrikoia egingo dute Errebalen mende laurdena ere bete duen Urbat waterpolo taldekoekin. “Bazkaria Urbatek antolatu du eta 25 euro ordaindu beharko dira. Trukean, bazkariaz gain, 25. urteurrenako zapia banatuko dute”, azaldu dute Ustekabekoek.

Arratsaldeko 19:30ean berriz itzuliko da ekintza kaleetara `Burrumba´ Elektrotxarangaren eskutik. Calbeton kalean hasiko dira jotzen eta, erdigunean aritu ondoren, Untzagan amaituko dute, gaueko kontzertuei lekukoa emanez.

Oholtzara igoko den lehen taldea herriko kuttunetako bat izango da: `EH Sukarra´. Ia dena dago esanda Eibarko taldearen inguruan. Euskal Herriko heavy metalaren eta rockaren ikurretako bat da eta, musikaren eszenan ia 40 urte daramatzan arren, ez du galtzen beti izan duen magia. Ondoren, gauerdian, erromeria izango dugu `Laket´ trikitixa taldearen eskutik.

Domekan emango zaio amaiera aialdiari. 12:30ean, `Euskorleans Dixie Band Jazz´ taldeak euskal abesti ikonikoen bereziak eskainiko ditu, New Orleanseko doinuen kutsua emanez, Ego Gain eta Untzaga inguruetan.

Urbaten txosna

Ustekabek bezala, Urbatek ere 25 urte bete ditu aurtan eta jaialdi osoan zehar txosna jarriko du Untzagan, eta bertan lortutako irabazien zati bat jaialdiaren gastuak ordaintzera bideratuko ditu. “Taldea bien ospakizunak elkarri zapaltzeko arriskua egon da eta, hori gertatu beharrean, indarrak batu ditugu eta elkarrekin ospatuko dugu”, txarangakoen berbetan.



Kaleko musika eta kontzertuak egongo dira irailaren 11tik 13ra bitartean Ustekaberen 25. urteurrena ospatzeko



Goian, Maialen Bravo, kartelaren egilea. Behean, hiru eguneko egitarauari hasiera emango dion Broken Brothers Brass Band.



Urbat IKE, harrobia sendotu nahian

E.B. Martitzenean ekin zieten entrenamenduei Urbat IKE waterpolo taldeko kategoria guztiek. Denboraldi berrirako prestatzeaz gain, klubak harrobia indartzen jarraitu nahi du eta haur gehiago waterpolo lora gerturatzea du helburu.

Horretarako, 2015 eta 2018 artean jaiotako haurrentzako ate irekien jardunaldiak antolatuko ditu waterpolo klubak. Saioak martitzen eta eguenetan, 17:00etan, izango dira.

Parte hartzeko ezinbesteko baldintza bakarra igerian jakitea izango da eta ez da beharrezkoa aurretik waterpoloan esperientziarik izatea.

Jardunaldietan hurrek kirola zuzenean ezagutzeko aukera izango dute, entrenamenduetan parte hartuz eta waterpoloaren oinarriak probatuz.

Klubetik azaldu dutenez, helburua igerilekura hurbiltzera animatzea da, igeriketa, talde-lana, estrategia eta dibertsioa uztartzen dituen kirola ezagutu dezaten.

Pello Berrizbeitia 35. izan da UTMB Montblanc lasterketa handian

E.B. Joan den barixakuan, abuztuak 28, UTMB Montblanc lasterketaren CCC probari eman zitzaion hasiera. Parte-hartzaileek 107,8 km-ko ibilbidea zuten aurretik, 6.198 m-ko desnibel positiboarekin eta 6.382 m-ko desnibel positiboarekin. Tartean, eibartar bat zen: Pello Berrizbeitia.

Ez zen lehen aldia lasterketa horretan korrikalari eibartarrarentzat eta esperientzia baliatu zuen pro-

ba ondo burutzeko. Berrizbeitiak 12 ordu, 11 minutu eta 21 segundo behar izan zituen lasterketa amaitzeko eta sailkapen orokorreko 35 postuan helmugaratu zen, 35 eta 39 urte artekoen mailan 4. sailkatuz.

Lasterketaren irabazlea Cristian Minoggio italiarra izan zen (10:21:48), bigarren Miguel Arsenio portugaldarra iritsi zen 5:37ra eta hirugarren Hans Troyer estatubatuarra 11:41era.

Ohorezko Erregional Mailako CD Urki taldeak bazkide kanpaina jarri du martxan

E.B. CD Urki futbol taldeak historia egin zuen orain dela bi denboraldi Ohorezko Erregional Mailara igota eta, iaz mailari ondo eutsi ondoren, historia egiten jarraitu nahi du aurtun.

Horretarako, zaleen babes ezinbestekoa izango da eta bazkide kanpaina jarri du martxan.

Bazkide izateko 20 euro ordaindu behar izango dira eta trukean hainbat abantaila jasoko dituzte bazkideek: opari 'urkista', autobu-

sez bidaiatzeko aukera eta kanpoko partidetan deskontuak, eta jai eta ekitaldietan parte hartzea jokalariekin batera.

Hori gizarteratzeko, bideo hunkigarria landu dute, CD Urki-k zelaian eta zelaikit kanpo egiten duen lana azpimarratuz.



Bideoa ikusi





Paula Calvok hainbat domina irabazi ditu udan

E.B. Espainiako Udako Junior Txapelketa jokatu zen uztailaren 23tik 26ra, Sabadellen, eta Paula Calvo dominaz beteta itzuli zen etxera. Eibar Igerixan taldeko elgoibartarrak bost domina eskuratu zituen bertan: urrezko bat, eta zilarrezko eta brontzezko bina domina.

Eibar Igerixanetik aipatu digutenez, “txapelketako unerik garrantzitsuena 200 metro bizkar proban iritsi zen. Paula nagusitasunez gailendu zen eta Espainiako txapeldun izendatu zen 17 urteko mailan”.



SD Eibar-ek bikain hasi du F Ligako 26/27 denboraldia

F Ligan jokatzen duen SD Eibar-ek RCDE Espanyol jaso zuen joan den zapatuan, abuztuaren 29an, Ipuruan, eta 1-0 gailendu zitzaion Alimata Belemek 91. minutuan sartutako golari esker.

Uda honetan aldaketa asko egon dira SD Eibar-en, baja eta fitxaketa askorekin, baina Iñaki Goikoetxeak zuzentzen duen taldeak ondo lotu ditu pieza guztiak eta emaitza positiboarekin ekin dio denboraldiari.

Hurrengo partida Real Madril indartsuaren aurka jokatuko du domekan, irailaren 6an, 20:30ean, Alfredo Di Stefano zelaian. Domekako neurketa Teledeporte, DAZN edo RTVE Play bitartez jarraitu ahal izango da zuzenean.

Eskola Kirolaren 2026/27 ikasturtean izena emateko epea zabalik dago

E.B. Aurten, eskaintza hiru programatan banatuko da, eta horietako bi berriak izango dira.

Jolas Hezi programa LH1 eta LH2ko haurrei zuzenduta egongo da. Jolasaren bidez kirol aniztasunera hurbiltzea eta koordinazioa, oreka eta bestelako gaitasunak lantzea du helburu, betiere lagun artean, euskaraz eta integrazioa sustatuz.

LH3tik LH6ra bitarteko ikasleek Multikirolan parte hartu ahal izango dute, eta gaitasun motorrak lantzea eta kirol aniztasuna ezagutzea izan-

go dira ardatzak. Haurrak erdigunean jarri eta bakoitzaren behar eta erritmoetara egokitutako jarduerak proposatuko dituzte, euskaraz eta beste eskoletako haurrekin harremanak sustatuz.

Hirugarren aukera EKE, Eskola Kirol Egokitua izango da, funtzio-aniztasuna duten LH1etik LH6ra bitarteko haurrei kirola eta jarduerak fisikoa egiteko aukera eskaintzeko.

Izena emateko: www.eibareskolakirola.eus. Informazio gehiagorako: eibareskolakirola@gmail.com.

Jokin Aranbarrientzat azken oparia: Elijah Gift

E.B. SD Eibarrek txukun hasi du Hypermotion Liga. 9 puntutatik 6 lortu ditu eta udan egindako zenbait fitxaketa ondo moldatu dira taldera.

Taldea osatuta zegoela zirudien, baina Jokin Aranbarri entrenatzaileak jokalaririk berri bat jaso du azken orduan: Athletic Clubetik lagata datorren Elijah Gift. Liverpoolen harrobrian ibili den 20 urteko nafarrak hegalean jokatzen du, aurrelari gisa.





Arrate eta Eibarko dantzak eskaini dituzte Izabako jaietan

S.H. Santiago eguna festa egun handia izaten da Izaban, eta aurten Eibar eta Izabaren arteko loturak dantzaren bidez sendotzeko bidea eman du jaiak. Izan ere, Eibarko Klub Deportiboko dantzari eta musikariek osatutako taldea bertan egon zen, emanaldia eskaintzen. Eibartik joandako hogeita hamar lagunek Arrate eta San Juan jaietako dantza bereizgarrien sorta eskaini zuten eta, bide batez, Izabako Kurruskla taldeko dantzariak omendu zituzten, “bai eta elkarrekin dantzatu ere, Izabako berezko dantza den ttun-ttuna, eskutik helduta azken kalejirarekin lotuz bi herrietako dantzariak”.

Kezka taldetik esan digutenez, “une berezi eta hun-kigarriak izan ziren. Besteak beste, Jone eta Idoia Lahidalga ahizpak, haien guraso Mikel Lahidalga eta Amaia Bagliettorekin batera, Izabarekin lotura estua baitute, eta Kurruskla dantza taldearekin aritzen baitira, dantzan hiru Lahidalgatarrak eta txistua jotzen Baglietto, Kezka dantza taldearekin bezala” (Argazkiak: Mikel Lahidalga).



XXXIX. Indalecio Ojanguren Argazki Lehiaketa deitu dute

S.H. Eibarko Klub Deportiboaren laguntzarekin Eibar-ko Udalak antolatu duen XXXIX. Indalecio Ojanguren Argazki Lehiaketara lanak aurkezteko epea zabalik dago, irailaren 25era arte. Gaia librea izango da, eta nahi duten argazkizale guztiek har dezakete parte. Parte-hartzaile bakoitzak gehienez sei argazki aurkeztu ahal izango ditu: hiru zuri-beltzean, eta beste hiru koloretan. Guztira 3.820 euro banatuko dituzte saritan: Ohorezko Sariaren irabazleak 1.500 euro eta CEFen urrezko domina jasoko ditu eta, gainera, saritutako argazki-bilduma Portalean egingo den erakusketan egongo da ikusgai. Informazio gehiago: www.eibar.eus.

Arrateko paella lehiaketarako izen-ematea, irailaren 10era arte

S.H. Eibarko Udalak paella lehiaketa antolatu du Arrateko Amaren jaietarako, eta izena emateko epea zabalik dago, irailaren 10era arte. Derrigorrezkoa da online egitea, Eibarko Udalaren webgunean dagoen formularioaren bidez. Oinarriak ere bertan kontsultatu daitezke. Lehiaketa, berri, irailaren 13an, Kofradia eta Baserritar Jubilatuen egunean jokatu da, Arraten, 12:00etan hasita.





Zabalik dago euskarazko irakurle talderako izen-ematea

S.H. *Idazlearekin Harixa Emoten* helduentzako euskarazko irakurketa klubean izena emateko epea zabalik dago. Juan San Martin Udal Liburutegiak eta ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatzen dute ekimena, elkarlanean, eta Ainhoa Aldazabal euskal filologoak eta literatur feministan adituak gidatuko ditu saioak i kasturte honetan ere. Antolatzaileen berbetan, “irakurketa klubak literatura gustuko dutenen arteko topagunea izan nahi du, irakurritako liburuen inguruan hitz egin, iritziak partekatu eta irakurketan sakontzeko. Gainera, idazleek ere parte hartuko dute saioetan, eta horrek irakurleek egileekin aurrez aurre solasteko aukera emango du”.

Saioak urritik maiatzera egingo dituzte, hilean behin, martitzenetan, 19:00etatik 20:00etara, Portalean. Jarduera 16 urtetik gorakoentzat eta doakoa da. Irailaren 13ra arte bete daiteke aurrematrikula, Udalaren webgunean eskuragarri dagoen formularioaren bidez.

Asteburu honetan itzuliko da zinema Coliseo Antzokira

S.H. Udako oporren ondoren, asteburu honetan itzuliko dira zinemako proiektzioak Coliseo Antzokira, ohiko egun eta ordu-tegietan (zapatu, domeka eta astelehenetan, arratsalde/gauetz). Asteburu honetan lau film ikusi ahal izango dira: *El ser querido* (Zuz.: Rodrigo Sorogoyen), *La constelación del perro* (Zuz.: Ridley Scott), *El final de Oak Street* (Zuz.: David Robert Mitchell) eta *Marsupilami* (Zuz.: Philippe Lacheau).



Ylenia Baglietto omendu dute Bilboko Aste Nagusian

S.H. Bizkaiko Artisten Elkarteak ‘Acrosticos’ saria eman die Ylenia Baglietto aktore eibartarrari, Carlos Santos aktoreari eta Ibon Areso Bilboko alkate ohiari, Bilboko Aste Nagusiaren baitan. Aurreko zapatuan egin zuten saria-banaketa, Arriaga atzokian. Sarituek plaka bana jaso zuten eta, nola ez, Bilboko jaietako hiru puntadun zapia, Bizkaiko hiriburuko urdin kolore esanguratsua-rekin. Gainera, olerki bana eskaini zieten, eta Ylenia Bagliettorena Iñaki Urrutia telebistako aurkezle eza-gunak eman zuen.

Udazken-negurako programazio zabala prestatu du Andretxeak

S.H. Aste honetan aurkeztu dute Andretxearen udazkeneko programazioa. Urritik abendura bitartean hainbat ikastaro, tailer, erakusketa eta jarduera eskainiko dituzte, eta emakumeen ahal-duntzea eta prestakuntza feminista izango dira ardatz nagusiak. Emakumeentzako Jabetze Eskolaren baitan hainbat ikastaro eta tailer antolatu dituzte: *Estresa kudeatzeko eta autozaintzarako tresnak*, *Ahizpatasuna*, *Zoru pelbikoa*, *Elikadura eta emozioak*, *Barreterapia*, *Harreman osasungarriak*... Eta, ikuspegi feminista eta dekoloniala lantzeko jarduerak ere egingo dira. Ikastaro eta tailerretan parte hartzeko aurrematrikula irailaren 23ra arte egin ahal izango da, Andretxearen eta Udalaren webguneetan eskuragarri dagoen formularioaren bidez edo, aurrez aurre, Andretxean.



ERRAZA

	2	8			5		1	
			4		8			6
		6			2	9	8	
6	4				8			
2								6
				5			4	3
		6	9	4			7	
	1			6		3		
	8		1			6	9	

SUDOKUA


4	6	9	3	5	1	2	7	8	7
5	2	7	8	9	6	3	4	1	4
8	7	1	4	2	6	9	5	3	6
3	2	6	2	1	5	7	3	8	9
9	8	6	3	7	1	3	4	2	5
7	5	1	7	3	4	2	6	8	9
1	9	8	6	2	3	4	7	5	1
3	7	5	4	2	6	9	1	3	8
6	2	9	5	8	1	4	3	7	6
1	6	3	7	5	4	2	8	9	1

1	4	6	5	3	9	6	7	2	8
2	2	7	6	8	5	9	1	4	3
3	9	5	9	6	8	2	1	2	5
6	5	7	4	7	8	2	3	6	1
9	8	1	3	9	5	4	7	6	2
7	4	5	1	3	9	7	6	1	4
6	1	3	8	6	2	2	5	7	4
5	9	6	7	8	2	2	6	1	3
5	7	2	6	1	6	3	4	7	1
3	8	5	2	4	7	1	6	9	8

ZAILA

	8				4	7		
		2				4		
	9	4	3				6	5
				6			7	
		8		5		3		
	4			9				
6	5				7	8	2	
		1				6		
		7	6				4	

LABIRINTO BOROBILA



Miguel Mendikute Ceberio
1. URTEURRENA

AGUR "KUTE"
Maitea zinen gure artean,
erorketa batekin joan zara zu.
Guztion partez, besarkada bat,
mila esker, mila musu.
Irribarrea eta zaletasuna
herentzia utzi dizkiguzu.
Zure etxeokak eta lagun guztiak
penaz beterik dauzkazu.
Aurrerantzean ere gurekin
beti izango zara zu.
Agur, ba, Kute; mundu herrian
izan zaitez zoriontsu.

- ZURE FAMILIA -



**Manu
Fernandez Goikoetxea**

12. URTEURRENA
2014/08/04

"Ez egin negarrik
amaitu delako;
irribarre egin
bizi izan dugulako"

- ZURE KUADRILLA -



 **Fernando
Martinez Alonso**

2026/08/03

Beti gure
bihotzetan

- IZEKO KONTXI ETA MIREIA -



 **Angel Jaureguibarria
Pagoaga**

2026/07/28

ESKERRIK ASKO une
latz hauetan gurekin
egon zareten lagun eta
famiIiako guztiok.

BETIKO GURE BIHOTZETAN
- ZURE FAMILIA -



 **Andoni Elduayen
Lasuen "Txispas"**

2026/08/17

"Lagun on bat aurkitzea
oso zaila da, galtzea
hainbat zailagoa, eta
ahaztea ezinezkoa"

- ZURE KUADRILLA -



 **Julio
Egiguren Larrañaga**

10. URTEURRENA
2016/08/05

"Zure irribarreak eta
samurtasunak gure
arteana dira"

- ZURE FAMILIA -



ZINEA COLISEO



“El final de Oak Street”
ZIENTZIA-FIKZIOA. ABENTURAK
2026/AEB/99’
Zuzendaria: David Robert Mitchell
Aktoreak: Anne Hathaway, Ewan McGregor, Maisy Stella
Dinosauroak. Familia. Biziraupena

1 ARETOA

- **5ean**: 17:00
- **6an**: 17:00

ANTZOKIA

- **5ean**: 19:45, 22:30
- **6an**: 20:00
- **7an**: 19:30



“El ser querido”
DRAMA
2026/Espainia/135’
Zuzendaria: Rodrigo Sorogoyen
Aktoreak: Javier Bardem, Victoria Luengo, Raúl Arévalo
Aitatasuna. Familia. Alkoholisinoa

1 ARETOA

- **5ean**: 19:30, 22:30
- **6an**: 20:00
- **7an**: 19:30



“La constelación del perro”
ZIENTZIA-FIKZIOA. THRILLER.
2025/AAEE/118’
Zuzendaria: Ridley Scott
Aktoreak: Jacob Elordi, Margaret Qualley, Josh Brolin
Pandemiak. Etorkizun postapokaliptikoa

2 ARETOA

- **5ean**: 17:00, 19:45, 22:30
- **6an**: 17:00, 20:00
- **7an**: 19:30



“Marsupilami”
KOMEDIA. ABENTURAK

2026/Frantzia/99’
Zuzendaria: Philippe Lacheau
Komikia. Familia-zinema

ANTZOKIA

- **5ean**: 17:00
- **6an**: 17:00

●●●

FUNEUSKADI

Grupo Asidex

●●●

FUNERARIA MUGICA

Funeruskadi

●●●

TANATORIO EIBAR

●●●

TANATORIO CREMATARIO ELGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951

www.funeuskadi.com

Eibar:
Otaola, 27

Eibarko bulegoa:
Bidebarrieta, 20

Elgoibar:
Xibilion, s/n. SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Ermuako bulegoa:
Marqués de Valdespina, 16

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

ESKERTZAK ETA
URTEURRENAK

Urkizu, 11 - solairuartera
publizitatea@etakitto.eus

688 62 76 89

...eta kitto! 2026 | 09 | 04



www.etakitto.eus
zorion-agurrak



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu aldizkarian eta gure webgunean. Informazioa guri helarazteko bi aukera daude: **FORMULARIO** bat betetzea **ETAKITTO.EUS** webgunean (QR-aren bidez sartu zaitezke), edo presentzialki gure bulegoan. Argazki arrunta: 4 euro. Bikoitza; 8 euro (%20ko deskontua elkarteko bazkideentzat)



Zorionak **JULEN!**, gure futbolari txikixa! 7 urte! jarraitu amets egiten, gozatzen eta irribarre egiten. Asko maite zaittugu!



Zorionak **UNAI!** Uztailaren 22ian urtetxua bete zenduan-eta! Patxo haundi bat famelixa-ren partez!



Zorionak **IAN!**, gure etxeko printzeak 8 urte bete zittuan abuztuaren 27xan. Millaka musu eta besarkada zure famelixa-ren partez!!



Zorionak **JUNE!**, neska haundi! Famelixa osuan eta Markelen partez musu pilo bat! Mila esker gure bihotzak alaitziarren!



Zorionak **ENeko!**, mutil haundi! Abuztuan 6 urte bete zenduazelako. Famelixa guztixan eta, batez be, lbaiaren partez.



Zorionak **NAIA!**, abuztuaren 19xan 10 urte bete zenduazena-eta. Musu haundi bat etxeko guztien partez.



Zorionak **HAIZEA!** zure 9. urtebetetziaren. Besarkada erraldoi bat etxekuen eta, batez be, Izaroren partez.



Zorionak **GARA!** Abuztuaren 21ian 6 urte egin dittuzu. Jarraitu hain maitegarri eta alaia izaten. Musu potolua etxekuen partez.



Zorionak **ANE!** zure 10. urtebetetziaren. Musu haundi bat famelixa-ren partez.



Zorionak **NORA ta MIREN!** Abuztuaren 26xan eta uztailaren 29xan 8 ta 5 urte bete zenduezen-eta. Patxo haundi bat etxekuen partez.




Zorionak bikote! Abuztuan 25ian **UNAI** (6 urte) eta 26an **ARATZ** (3 urte). Patxo pilla bat eta zorionak bixontzako, famelixa guztixan parte



Zorionak **IXONE!** Irailaren 7xan 14 urte beteko dittuzu. Musu haundi bat famelixa guztixaren partez.



Zorionak **MADDI eta ANE!** 12 urte, neskak! Zoragarri ospatugenduan zuen eguna. Asko maite zaittuztegu!!!



Zorionak **ALAITZ eta LUKA!** Abuztuaren 14an ta 27xan zuen urtiak izan dira. Besarkada haundixa famelixa guztixaren partez!!!



Zorionak **DANEL**, txapelduna! Aitxitxan eta amaman partez,



Zorionak **PABLO!** 9xan 6 urte betetzen dozuz eta, mutil haundi! Etxekuen eta batez be Luciaren partez. Asko maite zaittugu.



Zorionak **AMETS!** Gaur 6 urte betetzen dozuz, zoragarrixa da zu hazten ikustia. Pillua maite zaittugu, famelixa guztixan partez!



Zorionak **OSKITZ** zure bederatzigarren urtebetetziaren! Zure guraso, aitxitxa- amama eta, jakina, izebaren partetik be. Asko maite zaittugu.

Iragarki laburrak



943 20 67 76
aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa
2. MOTORRA
2.1. Salgai
3. LOKALAK
3.1. Salgai
3.2. Errentan
3.3. Konpartitzeko
4. LANA
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila
5. IRAKASKUNTZA
5.1. Eskaerak
5.2. Eskaintzak
6. DENETARIK
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA
1.2. Errentan
BENIDORM. Neguko denboraldirako etxebizitza alokatzen da. Gutxienez 15 eguneko egonaldiak. Hondartzatik eta erdigunetik gertu. Igerilekua. Garajea barne. Aukera ezberdinak aztertzen dira. Informazio gehiago: 667244733.
3. LOKALAK
3.2. Errentan
Garaje partzela alokagai Urki-Pasealekua, 9 kalean. Deitu 609453946

4. LANA
4.1. Lan bila
Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko interna moduan. Esperietziarekin. 612484347.
Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko edota etxeko lanak egiteko. 631888449.
Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko orduka, etxe edota ospitaletan. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. Baita etxeak garbitzeko ere. 667060292.
Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, edozein ordu eta egunetan. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 641955434.
Neska euskalduna eskaintzen da goizetan umeak zaintzeko eta eskolara eramateko. 618984291.
Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, interna bezala edota orduka. Edozein egun eta ordutan. 663365078.
Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, gabaz edota asteburuetan. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 631907582.
Emakumea eskaintzen da interna moduan lan egiteko. Esperientzia eta disponibilitatea. 632288100.
Emakumea eskaintzen da goizetan umeak eskolara eramateko. Urte askotako esperientziarekin. 645720594.
Emakumea eskaintzen nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Esperientzia eta ziurtagiri soziosanitarioarekin. 633101852.
18 urteko neska gaztea eskaintzen da, ikasturtean zehar goizetan umea eskolara eraman arte zaintzeko. anearrio-la1402@gmail.com
Emakumea eskaintzen da goizetan nagusiak zaindu

edota garbiketa lanetarako. 688740201.
Emakumea eskaintzen da dendar bezala edota estetika zentroetan laguntzaile bezala lan egiteko. 614043426.
Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientziaduna. Egun osoko disponibilitatea. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 631593925.
Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu edota garbiketa lanetarako. Edozein ordu eta egunetan. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 632624579.
Emakumea eskaintzen da pertsona nagusiak zaintzeko. Esperientziaduna. 642829497.
Gizona eskaintzen da zerbitzari lanak egiteko. Zerbitzari titulua du. 642138108.
Gizona eskaintzen da zerbitzari lanak egiteko. 642828910.
Mutila eskaintzen da soldatzailer lanak egiteko. Tituluduna. 614798337.
Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Goizez edo gauzez. Ziurtagiri soziosanitarioa. 633597550.
Emakumea eskaintzen da etxe edozein lanetarako, interna bezala edota orduka. Baita zerbitzari edota sukaldeko laguntzaile bezala lan egiteko ere. 643833656.
Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Orduka, baita asteburuetan ere. 632768653.
Neska arduratsua eskaintzen da irailetik aurrera umeak zaintzeko eta Lehen Hezkuntzako klase partikularrak emateko. Lehen Hezkuntzako gradua ikasten ari naiz eta umeekin lan egotea gustuko dut. 699913163.

4.2. Langile bila
Gasolindegri batean oporraldietarako lanaldi osoko saltzailea behar da. Interesatuak bidali curriculumacitain@gmail.com helbidera.
Langilea behar da gasolindegri batean. 8 orduko kontratua, igandeetan bakarrik lan egiteko. Interesatuak bidali curriculumacitain@gmail.com helbidera.
Pertsona bat behar da irailetik aurrera DBH 3ko eskola partikularrak etxean emateko. 675708939.
Eibarko taberna batean lan egiteko zerbitzari eta sukalderi euskaldun bila gabiltza. Interesa badaukazu idatzi langile.bila.eibar@gmail.com helbidera.
Banatzaileak behar dira ostiraletan...eta kitto! aldizkaria banatzeko (6 ordu). 11:00-18:00 bitartean, Urte osoko kontratua. Tel. 943200918 / banaketa@etakitto.eus

5. IRAKASKUNTZA
5.2. Eskaintzak
DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

Ongizatearen Plaza *Elgoibar*

irailak 10-11, Kalegoen Plaza

Ongizatea ondo bizitzea da. Zu, zure familia eta zure komunitatea ondo egotea eta ondo sentitzea.

Pertsonen ongizatean eragiten duten faktoreetan sakontzeko, adin tarteko guztientzako tailerrak, talde dinamikak, hitzaldiak eta solasak antolatu ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Zaloz eta parte hartu.



Egitarau osoa:
plaza.gipuzkoa.eus

OSTEGUNA - IRAILAK 10

10:00-11:30

osasuntsu zahartu

Adinberri telebista programako kirol saio irekia, estimulazio kognitiboko tailerra, eta mindfulness terapia.

11:30-13:00

elkardura jasangarria eta osasuntsua

Jakoba Errekando agrotekologian aditua. Gastelek programako hiru nekazaritza gazteekin, elkardura arduratsuaren gaitasunak hitz egingo du, belarlandak berrien esperientziak, errealak eta etorkizuneko nekazaritzaren inguruko ikuspegiak partekatu.

17:30-18:30

euskararen integrazioa, elkarbizitza

Herrira iritsi berrien eta berrantolatuen begiradak, hizkuntza, norasuna eta integrazioa ardatz hartuta. Euskararen ikuspegi erabilgarri eta partekatuzko abiatuta, herri berri baten aurrerakia egiteko, elkarbizitza, adarpozei eta aukerak hitz egingo dugu.

18:30-19:30

barreterapia tailerra

Barrunetan eta umorearen bidez ongizate emozionala lantzeko taller dinamikoa. Idola Torregarai umoregilearen eskutik.

OSTIRALA - IRAILAK 11

10:00-11:30

gastelek ongizatea

Sare-sozialeko aditzaia, gastelek sozietate gaitasun, bizitzaren kalitatea... hiperkonexioaren eraginak dira soilik? Gastelek zure ongizateaz azalduko du.

11:30-13:00

industriaren herria aldatzen ari da

Makina-erremintak Elgoibaren lizentziatutako du. Langile, enpresari eta prestakuntza munduko herriekin, industriak egindako ekarpena, ongizatearen duen eragina eta etorkizuneko errealak aztertuko ditugu.

17:30-18:30

pantailen aroan, erabilera osasuntsua

Aitza Burua elkartearekin, mugikorrak eta teknologia digitalen erabilera ongizatearen duen eraginari buruzko saio dinamikoa.

18:30-19:30

sorkuntza eta ongizatea

Herrira sorkuntza baten, sorkuntza prozesuak ongizatearen duen eraginaz sakatu gaita, adierazteko, emozioak lantzeko eta konektatzeko tresna gisa.

19:30-20:00

elgoibarko zapateekin amara alaita

Mauritza gaita dantaketa lizentziatutako sagardoarekin lagunduta, zapatekari amara alaita erakutsiko.

GIPUZKOA
Eliz. Zaindu. Bai.

BANATZAILEAK BEHAR DIRA

..eta kitto! aldizkaria
Eibarren banatzeko

- Ostiraletan (6 ordu)
- 11:00-18:00 bitartean
- Urte osoko kontratua

Interesa baduzu, jarri gurekin harremanetan:

943 20 09 18

banaketa@etakitto.eus



eta kitto!
euskara elkarteak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

EIBARKO
HIZKUNTZA
ESKOLA
OFIZIALA



ESCUELA
OFICIAL
DE IDIOMAS
DE EIBAR

EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA

Matrikula: Irailaren 1etik 16ra



on-line matrikula
IKASGUNE A
plataformaren bitartez

EUSKARA | DEUTSCH | ENGLISH | FRANÇAIS

- Ikastaro ERDIPRESENTZIALAK:
egun bat eskolan + lan pertsonala MOODLE plataforman
- ARRASATEN eta AZKOITIAN gela desplazatuak

INFORMAZIO GEHIAGO:

Otaola hiribidea 29
eoieibarheo@gmail.com
943 89 92 75

IKASTURTE OSOAREN PREZIOA

72,36 €

AGIRI OFIZIALA ESKURA EZAZU!

 @eoieibarheo

 eoieibarheo.hezkuntza.net

